

donostiakultura.com  
San Sebastián, ciudad de la cultura

2012 ASTE NAGUSIA  
semana grande  
Abuztua 11-18 Agosto Donostia / San Sebastián

Diseño: Lucas Fernández

Donostia Urdia  
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA 2016  
SAN SEBASTIÁN

## ASTE NAGUSIA - PRENTSA DOSSIERRA SEMANA GRANDE - DOSSIER DE PRENSA

## AURKIBIDEA ÍNDICE

Aste Nagusiko Kartela / Cartel de Semana Grande	003
Festa hasierako kanoikada / Cañonazo Festivo	007
Sagüeseko kontzertuak / Conciertos de Sagüés	011
Musika Bandak / Bandas de Música	025
Dantza Taldeak / Grupos de Baile	033
Gaueko Erromeriak / Noches de Romería	045
Easo plazako Dantzaldiak / Bailables en plaza Easo	053
Bulebarreko Gauak / Noches del Boulevard	057
Kursaal: Zurriola Kultur Irekia / Kursaal: Zurriola Intercultural	065
Antzerkia Gipuzkoa plazan / Teatro en plaza Gipuzkoa	073
Musika kalean / Música en la calle	083
Easo plazako Bertsolariak / Bertsolaris en plaza Easo	087
Kirol ekitaldiak / Actividades deportivas	089
Herri Kirolak / Deporte Rural	101
Haur jaialdiak / Fiestas infantiles	105
Erraldoi eta Buruhandiak / Gigantes y Cabezudos	113
Zezen Suzkoa / Toro de Fuego	121
Ekitaldi Gastronomikoak / Actividades Gastronómicas	123
Azokak / Mercados	131
Itsaspeko Zinema / Cine Submarino	137
Euskal Kantak eta Itsasoa	143
Feriala / Ferial	145

donostiakultura.com  
San Sebastián, ciudad de la cultura

2012 ASTE NAGUSIA  
semana grande  
Abuztua 11-18 Agosto  
Donostia / San Sebastián

Diseño: Lucas Fernández

Donostia Urdia  
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA 2016  
SAN SEBASTIÁN

## ASTE NAGUSIKO KARTELA CARTEL DE SEMANA GRANDE

## EGILEA - AUTOR LUCAS FERNÁNDEZ CALVO



LUCAS FERNÁNDEZ CALVO.

.- Talavera de la Reina –Toledo– jaioa. Delineatzaile-tituluduna, lana, eta diseinu grafikorako eta argazkigintzarako duen zaletasuna bateragarri bihurtzen ditu. Erabat autodidakta da. Batez ere hormirudien mundua lantzen du. 2008. urtean hasi zen lehiaketetan parte hartzen, eta Talaverako Emakumearen Egunaren kartel-lehiaketan lehen aldiz finalista izan zen. Beranduago, herri bereko Ferien Kartel-lehiaketan Lehen Saria eskuratu zuen. Sari horrek lanean eta bere ideiak erakusten jarraitzea bultzatu zuen. 2009. urtean Orgaz eta La Puebla de Montalbango –Toledo–, eta Bolaños de Calatravako – Ciudad Real– kartelen lehiaketetan lehen saria eskuratu zuela azpimarratu behar da. 2010. urtean Ermuko –Bizkaia– Inauterietako kartel-lehiaketan finalista izan

zen, eta Donostiako Aste Nagusiko Kartel-lehiaketa irabazi zuen. Eibarko Inauterietan ere irabazi zuen iaz Aurtengo Arrasateko San Juan Jaietako kartela ere berak egin du. Bi urtetan 70 kartel baino gehiago sortuta, <http://lukcarteles.blogspot.com/>. blogean berak egindako hainbat lan ikusi ahal izango ditugu.

LUCAS FERNÁNDEZ CALVO.

.- de Talavera de la Reina, Toledo. Titulado en Delineación, compagina su trabajo con su afición al diseño gráfico y a la fotografía, totalmente autodidacta. Centra sus creaciones en el mundo de la cartelería, y comienza a participar en concursos en el 2008, obteniendo su primer puesto Finalista en el Cartel del Día de la Mujer de Talavera. Posteriormente recibe el Primer Premio para el Cartel de Ferias de la misma localidad, lo cual le anima a seguir creando y a mostrar sus ideas. En 2009, a destacar el Primer Premio de Carteles en Orgaz y en La Puebla de Montalbán, de Toledo, y en Bolaños de Calatrava, de Ciudad Real. En 2010, consigue un puesto Finalista en los Carnavales de Ermua, Vizcaya, y ganador en el Cartel de la Aste Nagusia, de Donostia. También ganó el año pasado el concurso de carteles para anunciar los Carnavales de Eibar y este año, el cartel anunciador de las fiestas de San Juan de Arrasate, también es suyo. Con más de 70 carteles creados en dos años, podemos visualizar una selección en su blog <http://lukcarteles.blogspot.com/>.

Barra-kode bat produktu guztietarako gako nagusia da. Barruan daukan guztia, eskaini dezakeena eta gozatu dezakezuna ezagutzeko giltzarria. Asmoa hauxe zen, hain kode berezia, besterena ezin izan daitekeena... hain apartekoa sortzea, Donostiako Aste Nagusiak harrera egiten dien elementu guztiak kontuan hartuta, tradizio, dibertsio eta entretenimendu egun handienetan.

Orain, garaiz zaude zure kodea trukatzeko eta, batez ere... gozatzea da kontua!



IFK-CIF Q20005411  
10131n | 2009-11

"Un código de barras es la clave principal de todo producto. Es la llave para conocer todo lo que encierra, lo que puede ofrecer y con lo que puedes disfrutar.

La idea era crear este código tan peculiar, tan personal, intransferible,.. tan propio, con todos los elementos que acoge la Semana Grande donostiarra en sus mejores días de tradición, diversión y entretenimiento.

Es hora de canjear tu código y.... ¡a disfrutar! "

Trukatu zure kodea eta ondo pasatu!"

IFK-CIF Q20005411  
10131n | 2009-11



donostiakultura.com  
San Sebastián, ciudad de la cultura

2012 ASTE  
semana NAGUSIA  
grande  
Abuztua 11-18 Agosto Donostia / San Sebastián

Diseño - Lucas Fernández

## KANOIKADA CAÑONAZO

## **FESTA HASIERAKO KANOIKADA** **CAÑONAZO FESTIVO**

### **☒ 18:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK** **GIGANTES Y CABEZUDOS**

**Amara eskoletatik aterako dira eta Alderdi Ederrera iritsiko dira.**

Saldrán desde las Escuelas de Amara y confluirán en Alderdi Eder.



### **☒ 18:15 GOAZEN KANOIKADARA!!**

**¡¡VAMOS AL CAÑONAZO!!**

☒ **Gastronomiazko Euskal Anaiartearen Ohorezko Batailoia.**

☒ **Batallón de Honores de la Cofradía Vasca de gastronomía.**

**Gastronomiako Euskal Kofradiako Konpainia bere elkartetik aterako da eta Trinitate plaza, 31 de agosto kalea, San Jeronimo kalea, eta Boulevarra pasa ondoren, Alderdi Ederra iritsiko dira.**



La Compañía de la Cofradía Vasca de Gastronomía efectúa la salida desde su sede para dirigirse por plaza de la Trinidad, 31 de Agosto, San Jerónimo, Boulevard y finalizan en Alderdi Eder.

## ☒ 18:25 ERITMOAREKIN KANOIKADARA!! ¡¡CON RITMO AL CAÑONAZO!!

- 🎸 The Joselontxo's
- 🎸 Los Bebes de la Bulla
- 🎸 Skandalue Elektrotzaranga
- 🎸 Taupada Batukada
- 🎸 Mac Jeara's Band Beach

**Goian aipatutako taldeak hiriko erdiguneko puntu desberdinetik aterako dira eta Alderdi Ederrera iritsiko dira.**

Los grupos citados anteriormente partirán de diversos puntos del Centro de la ciudad y confluirán en Alderdi Eder.

## ☒ 19:00 FESTA HASIERAKO KANOIKADA CAÑONAZO FESTIVO

### 🎸 DONOSTIAKO PIRATAK

Gure aurtengo gonbidatua, "Donostiako Piratak" kolektiboak, "Artillero" abestia abestuko du. Era berean, Luis Moco-roa (Artillero Nagusia) kanoia ezarririk dagoen gaztelura igoko da. Ondoren, ikuslegoak, taldeak eta gainontzeko partaideek "piratekin" batera abestuko dute.

**Arratsaldeko 19:00etan, "Artillero dale fuego" esaldiarekin, metxa piztu, kanoiko bonbak leher egingo du.**

**Arratsaldeko 19:02etan, parte hartzen duten taldeak Hiriko Erdia eta Parte Zaharraruntz abiatuko dira.**



Nuestro invitado de este año, el colectivo "Donostiako Piratak", entonará el tema "Artillero", mientras el Artillero Mayor, Luis Moco-roa, sube al castillete donde se encuentra instalado el cañón. A continuación el público asistente entonará el mismo tema junto con "los piratas" y los grupos participantes.

A las 19:00 horas, a la frase de "Artillero dale fuego" se enciende la mecha y retumba el cañón.

A las 19:02 horas los grupos participantes se dirigirán al Centro y a la Parte Vieja.

☒ **19:02 KONTZERTUA**  
CONCIERTO

**THE USKI'S**

The Uski's taldeari (Elantxobe - Ibarregelu, Bizkaia 2003) familian abesteko ohiturak eman zion ideia eta hasiera. Anaiak, lehengusuak eta txikitako lagunak lotu dira The Uski's taldean alaitasuna emateko musikari.

The Uski's taldearen doinuetan jaiaren bi alderdi bat datozkigu: martxa eta abaila zein nare uneak eta baretasuna. The Uski's taldearen musika garai bateko rock and rollaren indarrez gainezka doa poparen irriñoekin, bluesaren aztarnekin, funkyaren zipiztinekin, baladen erasoekin, countryaren fererekin.

Anartz Laka: gitarra, 12 sokako gitarra, koruak.

Oier Laka: gitarra, baxua, timplea eta organua, koruak.

Jon Zameza: gitarra, baxua, eta gitarra akustikoa, koruak.

Iñigo Eiguren: ahotsa.

Iñaki Astoreka: bateria.

2005, "Itxosun zarati" (Oihuka)  
2007, "Barikun" (Oihuka)  
2009, "Katuek bezala" (Baga-Biga)  
2012, Tximinotan (Baga-Biga)

The Uski's (Elantxobe - Ibarregelu, Bizkaia 2003) empieza de la costumbre familiar por cantar. La historia de The Uski's comienza en la unión de unos jóvenes hermanos, primos y amigos con la simple idea de tomar la alegría por banda.

En las canciones de The Uski's podemos disfrutar de las dos especificidades de la fiesta: marcha y velocidad junto a tiempos lentos y sosegados. La música de The Uski's es la fuerza del rock and roll de antaño con la cálida sonrisa del pop, sensaciones blueseras, salpicones funkies, ataque de baladas y las caricias del country.



donostiakultura.com  
San Sebastián, ciudad de la cultura

2012 ASTE NAGUSIA  
semana grande  
Abuztua 11-18 Agosto  
Donostia / San Sebastián

Diseño - Lucas Fernández

Donostia Urdia  
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA 2016  
SAN SEBASTIÁN

## MUSIKA SAGUESEN MÚSICA EN SAGUÉS

**MUSIKA SAGUESEN**  
**MÚSICA EN SAGUÉS**

**ABUZTUA 11 - 17 AGOSTO**  
**ORDUA - HORA 23:45**

- |                                  |  |
|----------------------------------|--|
| <b>11 LARUNBATA / SÁBADO</b>     | <b>ZEA MAYS</b><br><b>DOCTOR DESEO</b>                             |
| <b>12 IGANDEA / DOMINGO</b>      | <b>ESNE BELTZA</b>   |
| <b>13 ASTELEHENA / LUNES</b>     | <b>LA FUGA</b>   |
| <b>14 ASTEARTEA / MARTES</b>     | <b>ASTE NAGUSIA DANCE</b>  |
| <b>15 ASTEAZKENA / MIÉRCOLES</b> | <b>GOSE</b><br><b>FUEL FANDANGO</b>                                |
| <b>16 OSTEguna / JUEVES</b>      | <b>GALLINERO ALL STARS</b> (100% GOURMET)<br><b>MALA RODRÍGUEZ</b> |
| <b>17 OSTIRALA / VIERNES</b>     | <b>ANAI-ARREBAK</b><br><b>KEN ZAZPI</b>                            |

## ZEA MAYS DOCTOR DESEO

**Eguna:** Abuztuak **11** larunbata  
**Ordua:** 23:45  
**Lekua:** Sagues

**Día:** **11** de agosto sábado  
**Hora:** 23:45  
**Lugar:** Sagués

### ZEA MAYS

Zalaparta handirik gabe hasi ziren gure entzumena gozaten, pixkanaka bidea eginez, kontzertuz kontzertu, diskoz disko.



Melodia, indar eta emozioen elkartze hobezina da, eta bertan abesti zuzenen alde egin dute apustu.

Lanaren emaitzak ezohiko freskotasuna transmititzen du. ZEA MAYSek "Cocktail"

zoragarria eskaintzen digu, ibilbidean urteak daramatzan taldearen jakituria eta iritsi berri baten irakinaldia nahasten dituen. Melodia eranskorrak, giro inguratzaileak, indarra, zirrara eta ikerlan estetiko etengabea dira ZEA MAYSek lan bikain hau taxutzeko erabili dituen osagaiak.

Comenzaron a acariciar nuestros oídos sin armar mucho revuelo, abriéndose camino poco a poco, concierto tras concierto, disco tras disco.

Una conjunción inmejorable de melodía, fuerza y emoción en la que el grupo apuesta por las canciones directas.

ZEA MAYS nos ofrece un exquisito "Cocktail" que mezcla la sabiduría de un grupo que lleva años en la carretera y la efervescencia de un recién llegado. Melodías pegadizas, ambientes envolventes, fuerza, emoción y una incesante investigación estética son los elementos con los que ZEA MAYS ha tejido este deslumbrante vestido.



## DOCTOR DESEO

Rock euskal taldea, laurogeiko urteen hasieran Bilbon sortua. Soilik komertzialak diren taldeen estilotik urrun, hauek dira nabarmentzen dituen ezaugarriak: aurreiritzirik gabeko letrak, soinu garratzak eta eszenaratze bikain-bikainak ematen dituzten kontzertuetan.

Aurreneko *Doctor Deseo* hartatik (1987an kaleratua) *Al amanecer ... seguir soñando* haien azkeneko laneraino, hamahiru dira argitara atera dituzten albumak. Azken lan honetan, kabaret eta antzoki soinetan murgildu dira: estilo anitzeko diskoa, elementu desberdinak biltzen dituena, beste era batera landuta, oso instrumentu landuekin, askotariko erritmoekin baina, aldi berean, era intimo batean kantatuta. Haiek dioten bezala "ipuin liburu" bat da, liburu-disko bat, musika kolore berriekin, erabateko dotorezia darien irudi eta testuekin. Bernardo Atxaga, Edorta Jimenez, Itziar Ziga eta Kirmen Uribe idazleek parte hartu dute ospakizun honetan, besteren artean Jesus Mari Lazkano eta Roscubas anaiak artistekin batera.



Grupo vasco de rock surgido en Bilbao a principios de los años ochenta. Fieles a un estilo que les aleja de grupos con planteamientos puramente comerciales, su mejor baza son unas letras sin prejuicios, unos sonidos ácidos y una fuerte puesta en escena en sus conciertos.

Desde aquel primer *Doctor Deseo* publicado en 1987 hasta su último trabajo *Al amanecer ... seguir soñando* trece han sido los albums publicados. En este su último trabajo se adentran en sonidos cabareteros y teatrales, un disco con estilos variados, con elementos distintos y tratados de una manera diferente, con instrumentos muy trabajados, con ritmos diferentes, pero a la vez cantado de una forma íntima. Como ellos lo denominan es "un libro de cuentos", un libro-disco con coloridos musicales nuevos, con imágenes y textos de auténtico lujo. Los escritores Bernardo Atxaga, Edorta Jimenez, Itziar Ziga y Kirmen Uribe han participado en esta celebración, junto a artistas como Jesus Mari Lazkano y los hermanos Roscubas, entre otros.

## ESNE BELTZA

**Eguna:** Abuztuak **12** igandea      **Día:** **12** de agosto domingo  
**Ordua:** 23:45      **Hora:** 23:45  
**Lekua:** Sagues      **Lugar:** Sagués

### ESNE BELTZA

Musika beltza, musikari zuriek jotakoa. Reggae, ska eta hip hop nahasteka, osagai tradizional batekin batera: trikitixa. Bizitasun handiko musika koloretsua, usaina eta zaporea darizkiona, dantza egitekoa.

Taldearen lan berria, hirugarrena, bikoitza da, CD-liburu formatuan. "3 Kolpetan" CDa biltzen du, 15 kantuekin, baita "Freedom" DVDa ere zuzeneko hainbat emanaldirekin eta 64 orrialdeko liburuarekin ere (azken honek taldearen irudi adierazgarrienak jasotzen ditu).



Música negra interpretada por músicos blancos, una mezcla de reggae, ska y hip hop junto con un elemento tradicional como la trikitixa. Una música viva y colorista, con olor y sabor, hecha para ser bailada.

El nuevo trabajo del grupo, el tercero, es doble y viene en formato CD-libro. Cuenta con un CD "3 Kolpetan" de 15 canciones, un DVD "Freedom" con varios directos y un libro de 64 páginas que incluye las imágenes más significativas del grupo.

## LA FUGA

**Eguna:** Abuztuak **13** astelehena    **Día:** **13** de agosto lunes  
**Ordua:** 23:45    **Hora:** 23:45  
**Lekua:** Sagues    **Lugar:** Sagués

### LA FUGA

Reinosako (Cantabria) taldea da La Fuga. 500 kontzertu baino gehiago eman izan dituzte hainbat eta hainbat biratan, 9 disko kaleratu dituzte orain arte, eta rock and rolla eta iraunkortasuna dituzte bereizgarri euren ibilbidean. Erakutsi duten ahaleginari esker, musikaren maila gorenean kokatu dira estatuan, kontuan hartuta ia 15 urte badirela hasi zirenetik.

Taldearen lan berria, *Raíces*, bizitasun handiko disko baikorra da, rockaren grinari eta zintzotasunari berriro heltzen

diena, lan irmoa, esperientziak ematen duen kalitatea, indarberritutako gogoaren freskotasuna eta La Fugaren hasierak markatu zituzten bi bandako kideen lankidetzaren bultzada elkartzen dituen: Barricada eta Los Suaves.



La Fuga es un grupo de Reinoso (Cantabria) con más de 500 conciertos a sus espaldas en una decena de giras, 9 discos publicados hasta la fecha, y una historia de constancia y rock and roll. Una banda cuyo esfuerzo ha situado en lo más alto del panorama de la música estatal, y cuyo comienzo se remonta a hace casi 15 años.

Su nuevo trabajo, *Raíces*, es un disco energético y optimista, un reencuentro con la garra y la honestidad rockera, un

trabajo tenaz que aúna la calidad de la experiencia, la frescura de las ganas renovadas y el aliento de las colaboraciones de miembros de dos bandas que marcaron los principios de La Fuga: Barricada y Los Suaves.

## ASTE NAGUSIA DANCE

**Eguna:** Abuztuak **14** asteartea **Día:** **14** de agosto martes  
**Ordua:** 23:45 **Hora:** 23:45  
**Lekua:** Sagues **Lugar:** Sagués

Álvaro Reina eta Edurdo Naranjo (Djak), Felipe eta Imanol (Ugarte Anaiak) txalapartariak eta Iñigo Galdos, Xabier Etxaniz eta Ainara Saizar trikitilariak. Hauek dira Aste Nagusia Dance.

Álvaro Reina Estatu mailako irrati Dj-a ezagunenetako bat da. 2002. urtean Máxima FM irratian lanetan hasi zen eta bi urte geroago Los 40 Principales-era pasa zen. Gaur egun, miloi lagun baino gehiagok entzuten dute bere saioa arratsaldero. Edu Naranjo Barcelonan hasi zen DJ residentea bezala eta 2009an, 40 Principaleseko irrati DJ'en talde nagusiko kide izatera pasa zen. 2010ean, Álvaro eta Eduardo Naranjok egitasmo berri bat jarri zuten martxan: 40 Principales Hot Mix. Alternatiba berri bat, dantza pistetan sortzen den giroa irratian islatzen saiatzen da.

Felipe eta Imanol, (Ugarte Anaiak) 1996an hasi ziren lehendabiziko ekitaldiak ematen herrialde ezberdinetan. Juan Mari Beltranen ikasleak izandakoa, 2002an beren lehen diska kaleratu zuten: Ttakunettan.

Iñigo Galdos, Xabier Etxaniz eta Ainara Saizarrek osatzen dute trikitilari taldea. Azkenak panderoa eta aurreko biek eskusoinua jotzen dute. Errepertorio tradizionalen urte mordoa daramate eta azken boladan modernoan ere egiten dituzte zenbait esperientzia.

Con los DJ's Álvaro reina y Eduardo Naranjo, los txalapartaris Felipe e Imanol (Ugarte Anaiak) y los trikitilaris Iñigo Galdos, Xabier Etxaniz y Ainara Saizar.

Álvaro Reina es uno de los DJ's más conocidos dentro del ámbito de la radio actual. En 2002 entra a formar parte del equipo fundador de Máxima FM pasando en el 2004 a Los 40 Principales. Actualmente más de un millón de personas le escuchan en la tarde de los 40. Edu Naranjo se inició como DJ residente en diferentes salas de Barcelona y en 2009 pasa a formar parte del equipo de Los 40 Principales. En el 2010, Álvaro y Eduardo ponen en marcha un nuevo proyecto: 40 Principales Hot Mix; una fórmula alternativa adaptada a las madrugadas que pretende trasladar el ambiente de las pistas de baile a la radio.

Los txalapartaris Felipe e Imanol (Ugarte Anaiak) comienzan con sus espectáculos en 1996 actuando en diferentes países. Alumnos de Juan Mari Beltran, en el 2002 sacan su primer disco: Ttakunettan.

El grupo de trikitilaris lo forman Iñaki Galdos y Xabier Etxaniz junto con Ainara Saizar al pandero. Con un repertorio tradicional, en los últimos tiempos han tenido experiencias con aires más modernos.

## GOSE FUEL FANDANGO

**Eguna:** Abuztuak **15** asteazkena    **Día:** **15** de agosto miércoles  
**Ordua:** 23:45    **Hora:** 23:45  
**Lekua:** Sagues    **Lugar:** Sagués

### GOSE

2004an sortua, proposamen bat da GOSE: trikitixa soinu tradizionala azpi elektronikoeekin nahasten duena. Erritmo lasaiak, dotoreak eta malguak, elektro-jazzetik technora doazen aireak, punk, hard core, arin-arin, tartean direla... eta hori guztia ahots liluragarri eta ezti batekin eta axolagabe utziko ez gaituzten testuekin batera. Emaitza: nahaste txundigarria eta aire freskoa Euskal Herriko musikaren panoraman. Lau disko kaleratuta eta hainbat kontzertu emanda, GOSE, oraintxe, talde aktiboenetakoa da Euskal Herriko musikan.



Nacidos en el 2004, GOSE es una propuesta en la que el sonido tradicional de la trikitixa se combina con bases electrónicas. Ritmos tranquilos, elegantes y maleables, aires que van desde el electro-jazz al techno pasando por el punk, hard core, arin-arin, ... y todo ello combinado y endulzado con una voz embriagadora y unos textos que no dejan indiferente a nadie. El resultado: una mezcla explosiva y un soplo de aire fresco en el panorama musical de Euskal Herria. Con cuatro discos editados e innumerables conciertos en su haber, GOSE es ahora mismo uno de los grupos más activos en la música de Euskal Herria.

## FUEL FANDANGO

Ale Acosta eta Nita Fuel dira Fandango taldea osatzen duten bikotea. Ale Acostak (MOJO PROJECT 2004) sortu zuen. Bere taldekide Nita, flamenkoa ariman eta musika beltza eztarrian daramatzana, Kordobako neska gazte bezain eskarmentu handiko kantaria da: koplari eta flamenko sustraian ditu bere sorburuak, eta pausoz pauso joan da bat egiten soul, funk eta elektronikatik gertu dauden proiektuak aurrera eramaten. Ohol gainean, suhartasun eta erabateko indarra darion emakumea da Nita.

Bere aurreneko albumak 13 kanta biltzen zituen (funk, rock, electronika eta halako flamenko kutsua), 2010ean Kordoba eta Madril artean grabatutakoak, letrak ingelesez eta gaztelaniaz edo soinu beltza eta flamenkoa konbinatuz, Nitak dioenez "flamenkoak ez baitaki hizkuntzei buruz".



Fuel Fandango es un duo formado por Ale Acosta y Nita. Creado por Ale Acosta (MOJO PROJECT 2004)

Su compañera de viaje es Nita, que lleva el flamenco en su alma y la música negra de su garganta, es una joven pero muy experimentada cantante cordobesa que inició su carrera al calor de la copla y raíz flamenca y que ha ido progresivamente combinando proyectos cercanos al Soul, el Funk y la Electrónica. Sobre el escenario, Nita es pura pasión y arrebatado de energía.

Su primer álbum contenía 13 canciones de funk, rock, electrónica y un pellizco de flamenco grabadas entre Córdoba y Madrid a lo largo de 2010. Combinando las letras en inglés y el castellano, o el sonido negro con el flamenco, ya que según afirma Nita "el flamenco no sabe de lenguajes".



## GALLINERO ALL STARS MALA RODRÍGUEZ

**Eguna:** Abuztuak **16** osteguna      **Día:** **16** de agosto jueves  
**Ordua:** 23:45      **Hora:** 23:45  
**Lekua:** Sagues      **Lugar:** Sagués

### GALLINERO ALL STARS (100% GOURMET)

100% Gourmet Records Donostialdeko proiektua da, hip hop musika landu eta bultzatzeko. 10 artistak partekatzen duten estudio bat da, rap disko edo maketa on bat grabatu ahal izateko baliabiderik ezean sortua, horretarako diru kopuru handirik behar izan gabe, alegia. Donostian egindako hip hop-a.



100% Gourmet Records es un proyecto de Donostialdea por y para el hip hop. Un estudio compartido por 10 artistas y nacido como consecuencia de la falta de medios para poder grabar un buen disco o maqueta de rap sin tener que desembolsar grandes cantidades de dinero para ello. Hip hop hecho en Donostia

## MALA RODRÍGUEZ

Espainiako musikaren eszenan nekez gaindi daitekeen jario lirikoaren jabe, *hip-hop* espainolaren artista gailenetakoa da Mala Rodríguez. Ezustekoa, lotsagabea eta oso-oso berezia da bera. Izan ere, ondo baino hobeto lortu du nazioarteko hip hop soinuak eta flamenko kutsua dutenak nahasten kadentziaz eta erritmoz beteta.



Kalean sustraitutako hizkuntza xumea eta lotsagabea erabiltzen du, asfaltoa bezalakoa, eta iraultza piztu du hiriko erriman, erritmo musikala azpian duela poesia eginez.

Bere soinu flamenkoak eta ahots tinbre bereziak, urratuak, ijito kutsu zoragarria darionak, hip hop musika inoiz entzungo ez luketen jarraitzaileak erakarri ditu.

Dueña de un caudal lírico insuperable en la escena musical española, la Mala Rodríguez es una de las artistas más importantes del *hip-hop* español. Sorpresiva, descarada y muy suya, ha logrado mezclar los sonidos del hip hop internacional con sonidos aflamencados en una ejecución cargada de cadencias y ritmo.



Poseedora de un lenguaje sencillo enraizado en la calle y descarado como el asfalto, ha revolucionado la rima urbana haciendo poesía encima de un ritmo musical

Su sonido flamenco y particular timbre de voz, raspado y exquisitamente gitano, le han granjeado adeptos que jamás hubiesen escuchado hip hop

## ANAI-ARREBAK KEN ZAZPI

**Eguna:** Abuztuak **17** ostirala      **Día:** **17** de agosto viernes  
**Ordua:** 23:45      **Hora:** 23:45  
**Lekua:** Sagues      **Lugar:** Sagués

### ANAI - ARREBAK

Anai-Arrebak talde pasaitarra (Donibanekoa) Arabatakada maketa Lehiaketa irabazleak dira. Anai-arrebak, alde batetik Matxet eta Margarita Andereñoa (ahotsak) anai arrebak eta, beste aldetik, Etxarri anaiak, Kapitaina (gitarra) eta Manu (teklatura eta sinteak) osatzen dute. Bateria ere beste taldekide aurkituko dugu: The Commander.

Horregatik anaitasun sanjuandar honen disko eta rock musikaren nahasketa, leherketa itzela da, kontuan hartzen baditugu beren gustuak: Beth Ditto, Men, Women and Children, Jackson 5, The Rapture, Parchis, Bee-Gees, Iggy Pop, Justice, !!!, Peaches...

IFK-CIF Q20005411  
10131n | 2009-11



Anai-Arrebak es un grupo pasaitarra (Pasai Donibane) ganadores del Concurso de maquetas del Festival Arabatakada. Compuesto por dos parejas de hermanos, Matxet y Margarita Andereñoa (voces) por un lado y Kapitana (guitarra) y Manu Etxarri (teclados y sintetizadores) por otro a los que hay que añadir la batería de The Commander.

La mezcla de música disco y rock de esta hermandad sanjuandarra es explosiva, teniendo en cuenta sus gustos: Beth Ditto, Men, Women and Children, Jackson 5, The Rapture, Parchis, Bee-Gees, Iggy Pop, Justice, !!!, Peaches...

## KEN ZAZPI

Ken Zazpi (Gernika 1996) oraingo euskal rock musikan diren talde sendoenetakoa da, euren sustrai kulturalak galdu gabe eta konpromiso soziala agerian uzten duten letrekin. Euskal pop-rockaren punta-puntako taldea, gazteengana berehala hurbildu den musika egiten duena, eta sentimendu sakonak eta euren inguruko gertaerekiko konpromisoa erakusten duten letrekin, gainera.

Ken Zazpi taldeak beti jakin izan du publikoa erakartzen, betiere harrapatu izan baititu bere sentsibilitate eta intuizioarekin.

Konposizio bikainak, errepika gozoak, erritmoen oinarri sendoa, melodia eranskor eta erakargarriak eta letretan bildutako konpromisoa dira entzuleengan bizitzaren aurrean ilusioa piztu eta haien bihotzetan desio sakonak eragiten dituzten osagaiak.



IFK-CIF Q20005411  
10131n | 2009-11

Ken Zazpi (Gernika 1996) es una de las bandas más contundentes del rock vasco actual, sin perder de vista sus raíces culturales y con unas letras en las que evidencian un compromiso social. Grupo puntero del pop-rock vasco, con una música que ha calado rápidamente entre los jóvenes y unas letras en las que abordan sentimientos profundos y el compromiso con lo que sucede en su entorno.

Ken Zazpi siempre ha sabido atrapar la atención de su público, pues ha acertado en cada momento con su sensibilidad y su intuición.

Sus brillantes composiciones, los sabrosos estribillos, la contundencia de su base rítmica, la seducción de sus contagiosas melodías y el compromiso de sus letras hacen nacer ilusiones vitales y deseos profundos en los corazones de sus oyentes.

IFK-CIF Q20005411  
10131n | 2009-11



IFK-CIF Q20005411  
10131n | 2009-11

donostiakultura.com  
San Sebastián, ciudad de la cultura

2012 ASTE NAGUSIA  
semana grande  
Abuztua 11-18 Agosto  
Donostia / San Sebastián

Diseño - Lucas Fernández

Donostia Urdia  
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA 2016  
SAN SEBASTIÁN

## MUSIKA BANDAK BANDAS DE MÚSICA

**MUSIKA BANDA  
BANDAS DE MÚSICA**

**ABUZZTUA 12 - 17 AGOSTO  
ORDUA - HORA 19:00**

**12 IGANDEA / DOMINGO**

**ZANGOZAKO UDAL MUSIKA BANDA**  
BANDA DE MÚSICA MUNICIPAL DE SANGÜESA  
BULEBARREAN

**14 ASTEARTEA / MARTES**

**ORCHESTRE HARMONIE DE BIARRITZ**  
ZULOAGA PLAZAN

**15 ASTEAZKENA / MIÉRCOLES**

**IRUN HIRIA MUSIKA BANDA KULTURTALDEA**  
AGRUPACIÓN CULTURAL BANDA DE MÚSICA CIUDAD DE IRÚN  
BULEBARREAN

**16 OSTEGUNA / JUEVES**

**"ILLUNBE" TRINTXERPEKO MUSIKA BANDA**  
TRINTXERPE MUSIKA BANDA "ILLUMBE"  
BULEBARREAN

**17 OSTIRALA / VIERNES**

**HARMONIE BAYONNAISE**  
BULEBARREAN

**18 LARUNBATA / SÁBADO**

**EJEA DE LOS CABALLEROS UDAL MUSIKA BANDA**  
BANDA MUNICIPAL DE EJEA DE LOS CABALLEROS

## ZANGOZAKO UDAL MUSIKA BANDA

**Eguna:** Abuztuak **12** igandea      **Día:** **12** de agosto domingo  
**Ordua:** 19:00      **Hora:** 19:00  
**Lekua:** Bulebarreko kioskoan      **Lugar:** Kiosco del Boulevard

Zangozar musikari-talde baten eta Udalaren artean sortu zuten 1896an. Bere emanaldien ospea Nafarroa, Aragoi, Galizia, Euskadi eta Behe Nafarroa osoan zabaldu da, eta Zangozako jaialdi, ekitaldi kultural eta erlijiosoetan hartu du parte. Gaur egun, Zangozako Musika Eskolatik etorritako berrogeitazortzi partaidek osatzen dute, eta beste ezaugarriarik aipatu baino lehen, banda gaztea dela esan beharra dago, Jokin Borrromeo Juan zuzendari eta musikaria bezalaxe.



IFK-CIF Q20005411  
10131n | 2009-11

Fundada en 1896 entre un grupo de músicos sangüesinos y el Ayuntamiento. El marco de sus actuaciones se ha extendido por toda Navarra, Aragón, Galicia, el País Vasco y Baja Navarra, participando también en acontecimientos culturales, religiosos y festivos en Sangüesa. En la actualidad está formada por cuarenta y ocho componentes provenientes de la Escuela de Música de Sangüesa y el calificativo que le cuadra es el de joven, incluido el director y músico Jokin Borrromeo Juan.

### EGITARAU / PROGRAMA

- A YORKSHIRE OVERTURE ..... Philip Sparke
- LOS DOS ADOLFOS (Pasodoble) ..... Martín Domingo
- LOVE STORY (Arr. Naohiro Iwai) ..... Francis Lai.
- L'INGLESINA (Marcha)..... Davide Delle Cese
- LOUIS ARMSTRONG'S LEGEND ..... Arr. Giancarlo Gazzani
- FESTIVAL CONCERT MARCH ..... James Barnes
- MAMBO JAMBO (Naohiro Iwai) ..... Perez Prado. Arr.
- EN EL HAREN (Escena Oriental)..... Ricardo Dorado
- WEST SIDE STORY (Arr. Naohiro Iwai) ..... Leonard Bernstein.
- LA LEYENDA DEL BESO (Intermedio). ..... Soutullo y Vert
- PEÑA TAURINA VITORIANA (Pasodoble) ..... Martín Domingo

## ORCHESTRE HARMONIE DE BIARRITZ

**Eguna:** Abuztuak **14** asteartea      **Día:** **14** de agosto martes  
**Ordua:** 19:00      **Hora:** 19:00  
**Lekua:** Zuloaga plazan      **Lugar:** Plaza de Zuloaga



**Kiosque à Musique / Itsas soinua** deituriko elkartearen barruan sorturiko Orchestre Harmonie de Biarritz, neurri handi batean, Paris eta Lyon eskualdeetako kontserbatorioetan hezitako musikariz osatuta dago. Guztira 75 kontzertu-emaille dira André Lassus zuzendariaren agindupean Sparke, Mozart, Hardy Mertens edota Curnowen piezak jotzen dituztenak.

Pertenciente a la Asociación Kiosque à Musique / Itsas soinua, la Orchestre Harmonie de Biarritz está compuesta por 75 músicos, de los cuales un gran número son profesionales formados en los conservatorios de Paris y de la región de Lyon. Todos ellos interpretan piezas de compositores como Sparke, Mozart, Hardy Mertens o Curnow, entre otros, bajo la dirección del maestro André Lassus.

### EGITARUAU / PROGRAMA

- ALZIRA OUVERTURE..... VERDI
- LES CONTES D'OFFMAN..... OFFENBACH
- LA PERI..... DUKAS
- CAMINO DEL ROCIO..... A. MORENO
- PIERRE ET PIERRETTE 2 Trompettes solo..... REYNARD
- MISTY Trombone solo..... GARNER
- EL PASO MONTANES..... KEES VLAK
- LA LEGEND DEL BESO..... GIMENEZ
- WEST SIDE STORY..... BERNSTEIN
- CAGANCHO paso doble torero..... J. COLORADO/T. SANZ
- EL JULI..... A. MORENO

## IRUN HIRIA MUSIKA BANDA KULTURTALDEA

**Eguna:** Abuztuak **15** asteazkena    **Día:** **15** de agosto miércoles  
**Ordua:** 19:00    **Hora:** 19:00  
**Lekua:** Bulebarreko kioskoan    **Lugar:** Kiosco del Boulevard

Irungo Musika Banda noiz sortu zen zehatz-mehatz ez badakigu ere, jakin badakigu XIX. mendearen erdialdean Irunek bazuela musika banda bat. 1976an utzi zion Udal Banda izateari eta orduan beretu zuen gaur egun duen izena.

Gaur egun Irun Hiria Musika Banda 80 musikarik osatzen dute. Elkarrekin ongi moldatzen dira beteranoak eta gazteak, eta talde instrumental homogeneoa osatzen dute.

Aunque no se conocen con exactitud sus orígenes, algunos documentos hablan de la existencia de una banda de música en Irún a mediados del siglo XIX. En 1976 dejó de ser Banda Municipal y adoptan el nombre actual.

En la actualidad, la Banda de Música Ciudad de Irún está integrada por 80 músicos, donde se aglutina la veteranía y la juventud, formando un conjunto instrumental homogéneo.



### EGITARAUA / PROGRAMA:

- |                                     |   |                    |
|-------------------------------------|---|--------------------|
| <input checked="" type="checkbox"/> | FIN DE FIESTA (Pasodoble).....              | Primitivo Azpiazu  |
| <input checked="" type="checkbox"/> | LA GRAN VIA (Zarzuela).....                 | Federico Chueca    |
| <input checked="" type="checkbox"/> | LA PALOMA (Canción).....                    | Sebastian Yraddier |
| <input checked="" type="checkbox"/> | MOON RIVER (Banda sonora).....              | Henry Mancini      |
| <input checked="" type="checkbox"/> | CERTAMEN MUSICAL (Pasodoble).....           | Ricardo Dorado     |
| <input checked="" type="checkbox"/> | FLASHING WINDS (Tema).....                  | Jan Van Der Roost  |
| <input checked="" type="checkbox"/> | MUSIC FOR A MOVIE PICTURE (Banda sonora)... | Kees Vlak          |
| <input checked="" type="checkbox"/> | HAVA NAGILA (Canción).....                  | Popular            |

## "ILLUNBE" TRINTXERPEKO MUSIKA BANDA

**Eguna:** Abuztuak **16** osteguna

**Día:** **16** de agosto jueves

**Ordua:** 19:00

**Hora:** 19:00

**Lekua:** Bulebarreko kioskoan

**Lugar:** Kiosco del Boulevard



Ilunbe Trintxerpeko Musika Bandak bere lehenengo jarduera 1978/79 ikasturtean egin zuen, Trintxerpe/Pasaia herriko jaietan lehenengo kontzertua emanaz, Jose Luis Oconen zuzendaritzapean. Hasieratik, bere kide guztiak Ilunbeko Musika Eskolan eta Pasaia Musikaleko kontserbatorioan egin dituzte ikasketak. Bandak 45 kide ditu eta gaur egun Fran Berra, Pasaia Musikaleko irakaslea, da zuzendaria.

La Banda de Música de Trintxerpe Illunbe, inició su actividad en el curso 1978/79, efectuando su primer concierto, con motivo de las fiestas patronales de Trintxerpe/Pasaia, bajo la dirección de José Luis Ocón. Desde su inicio la totalidad de sus componentes han cursado estudios en la Escuela de Música Illunbe y en el Conservatorio Pasaia Musical. La banda consta de 45 componentes, siendo en la actualidad su Director Fran Berra, profesor de Pasaia Musikal.

### EGITARAUA / PROGRAMA:

- BANDA GALEGA (PASODOBLE) ..... F.PÉREZ SEARA
- LA MÁSCARTA DEL ZORRO (BANDA SONORA/ CINE)..... JAMES HORNER
- LA MISIÓN (BANDA SONORA/CINE) ..... ENNIO MORRICONE
- GLASNOTS (POP MELODIAS RUSAS) ..... DIZZY SRATFORD
- QUEEN ´S PARK MELODY (POP MELÓDICO) ..... JACOB DE HAAN
- JAIALDIA (CANCIONERO EUSKALDUN) ..... IÑAKI URKIZU
- AIRES VASCOS Nº 1 (FANTASÍA VASCA) ..... J.FRANCO
- EMON-EMOS (KALEJIRA) ..... F. DE BEOBIDE

## HARMONIE BAYONNAISE

**Eguna:** Abuztuak **17** ostirala

**Ordua:** 19:00

**Lekua:** Bulebarreko kioskoan

**Día:** **17** de agosto viernes

**Hora:** 19:00

**Lugar:** Kiosco del Boulevard

Harmonie Bayonnaise musika-banda 40 musikarik osatzen dute. François Gonzálezen zuzendaritzapean, bandak errepertorio eklektiko eta luzea du: musika klasikotik jazzera, betiko musika ahaztu gabe. Harmonie Bayonnaise 1879an sortu zen eta gaur egun Baionako zezen plazako banda ofiziala da.



Harmonie Bayonnaise es una formación musical compuesta por unos cuarenta músicos dirigidos por François González. Con un repertorio muy ecléctico que va desde la música clásica al jazz, sin olvidar la música tradicional. La agrupación fue creada en 1879 por M. Frontère. Actualmente es la banda oficial de la plaza de toros de Bayona.

### EGITARAUA / PROGRAMA:

- |  |                  |
|--|------------------|
| <input checked="" type="checkbox"/> JUBILEE FANFARE      | IVO KOUWENHOVEN  |
| <input checked="" type="checkbox"/> CEREMONIAL OUVERTURE | LORENZO PUSCEDDU |
| <input checked="" type="checkbox"/> MERLE ET PINSON      | J. REYNAUD       |
| <input checked="" type="checkbox"/> AIRES VASCOS N° 2    | AIR POPULAIRE    |
| <input checked="" type="checkbox"/> SOUL BOSSA NOVA      | QUINCY JONES     |
| <input checked="" type="checkbox"/> GUAPA MARIA          | TRADITIONNEL     |
| <input checked="" type="checkbox"/> MAS QUE NADA         | JONGE BEN        |
| <input checked="" type="checkbox"/> DAY O                | IRVING BURGIE    |
| <input checked="" type="checkbox"/> EL CID               | ABEL MORENO      |
| <input checked="" type="checkbox"/> MAMBO JAMBO          | PEREZ PRADO      |
| <input checked="" type="checkbox"/> SPANISH FEVER        | JAY CHATTAWAY    |
| <input checked="" type="checkbox"/> MARITXU              | TENARO           |

## EJEA DE LOS CABALLEROS- UDAL MUSIKA BANDA

**Eguna:** Abuztuak **18** larunbata  
**Ordua:** 19:00  
**Lekua:** Bulebarreko kioskoan

**Día:** **18** de agosto sábado  
**Hora:** 19:00  
**Lugar:** Kiosco del Boulevard



Ejea de los Caballeros-eko Udal Musika Bandari buruzko lehen dokumentuak 1910 inguruan azaldu ziren. Javier Comenge Leonar jaunak hartu zuen zuzendaritza 2004ko urrian. Gaur egun, taldeak 72 kide ditu eta 40 musikariz osaturiko Gazteen Banda ere bai. Urtero, "Festivales de Bandas de Música Villa de Ejea" antolatzen du.

Ejea de los Caballeros-eko Musika Bandak, bere historian zehar, hainbat herritan eskaini ditu kontzertuak: Gallur, Calatayud, Tauste, Alagón, Utebo, Muel, Botorrita, Épila, Caspe, etab. Nabarmentzekoak dira Calatorao eta Alfamén-go Banden Jaialdiak, Masas Corales "Canal de las Bardenas" XXV. Jaialdian eskainitako emanaldia eta Bilboko Udal Bandaren Mendeurrena ospatzeko Bilbon eskainitakoa. Donostian ere, behin baino gehiagotan egon da.

Es en la década de 1.910 cuando aparecen los primeros documentos sobre la existencia de la Banda Municipal de Música de Ejea de los Caballeros. Desde octubre de 2.004, dirige la Banda y Escuela de Música de Ejea de los Caballeros D. Javier Comenge Leonar. En la actualidad la agrupación cuenta con 72 componentes, con una Banda Juvenil de 40 músicos y organiza cada año el "Festivales de Bandas de Música Villa de Ejea"

La Banda de Música de Ejea de los Caballeros, a lo largo de su historia, ha actuado en diferentes localidades como Gallur, Calatayud, Tauste, Alagón, Utebo, Muel, Botorrita, Épila, Caspe, destacando: el Festival de Bandas de Calatorao y Alfamén, la actuación en el XXV Festival de Masas Corales "Canal de las Bardenas", la actuación en Bilbao con motivo de la celebración del Centenario de la Banda Municipal de Bilbao. En San Sebastián también ha actuado en más de una ocasión.

### EGITARAUA / PROGRAMA:

#### 1ª Parte:

- La Gracia de Dios ..... Ramón Roig
- Gallito..... Santiago Lope
- Suspiros de España ..... Antonio Álvarez
- O Fortuna- Carmina Burana ..... Carl Orff
- La Gazza Ladra ..... Gioachino Rossini
- El Tambor de Granaderos ..... Ruperto Chapi

#### 2ª Parte:

- Olé Contrabandistas ..... Ramón García i Soler
  - Alaska..... Arreglos Azael Tormos
  - Sing, Sing, Sing ..... Louis Prima
  - Marcha y Jotas Vascas ..... Arreglo Santiago Solano
  - Habanera "Volver a Ejea" ..... José Luis Urbén
- Voces solistas: Pilar Rived y Adolfo Sierra
- A Klezmer Karnival ..... Philip Sparke

donostiakultura.com  
San Sebastián, ciudad de la cultura

2012 ASTE  
semana NAGUSIA  
grande  
Abuztua 11-18 Agosto  
Donostia / San Sebastián

Diseño - Lucas Fernández

## DANTZA TALDEAK GRUPOS DE BAILE

**DANTZA TALDEAK**  
**XXXV. TXISTULARI ALARDEA**  
**GRUPOS DE BAILE - XXXV ALARDE DE TXISTULARIS**

**ABUZTUA 11 - 17 AGOSTO**

**11 LARUNBATA / SÁBADO**

**XXXV. TXISTULARI ALARDEA**

**12 IGANDEA / DOMINGO**

**KRESALA DANTZA TALDEA**

**13 ASTELEHENA / LUNES**

**GERO AXULAR DANTZA TALDEA**

**14 ASTEARTEA / MARTES**

**TREBESKA DANTZA TALDEA**

**15 ASTEAZKENA / MIÉRCOLES**

**ARKAITZ DANTZA TALDEA**

**15 ASTEAZKENA / MIÉRCOLES**

**RAÍCES NAVARRAS**

**16 OSTEGUNA / JUEVES**

**ESKOLA DANTZA TALDEA**

**17 OSTIRALA / VIERNES**

**HARRIBIL DANTZA TALDEA**

**18 LARUNBATA / SÁBADO**

**GOIZALDI DANTZA TALDEA**

## XXXV. TXISTULARI ALARDEA

**Eguna:** Abuztuak **11** larunbata      **Día:** **11** de agosto sábado  
**Ordua:** 20:30      **Hora:** 20:30  
**Lekua:** Konstituzio plazan      **Lugar:** plaza Constitución

### EGITARAUA - PROGRAMA

1. DONOSTIA (pasodoblea).....Antonio Peña y Goñi\*\* (1846-1896)
2. ISLA DE SANTA CLARA.....Hitzak: José M<sup>a</sup> Iturri (1914-1977)  
Musika: Francisco Escudero\*\*\* (1912-2002)
3. 1512 GOGOAN: 500 URTE. BERTSOTAN  
*Bertsolaria: Julio Soto, Nafarroako bertsolarien txapelduna*
4. 1512 GOGOAN: 500 URTE: MAKIL DANTZA.....??????  
*Ibarrako Alurr dantzari taldea*
5. NIKO ETXART:
  - Musde Ürrütia.....Zuberoako antzinako kanta
  - Oihaneko zühainetan..... Zuberoako antzinako kanta
6. NAFARROAKO TXISTULARI GAZTEAK:
  - Nafarroako Himnoa.....Ezezaguna/Mold: Lorenzo Ondarra (1931—)
  - Errazuko sagar dantza.....Pablo Sorozabal (1897-1988)
7. ANTZINAKO DANTZAK.....Jose Ignazio Ansorena  
*Ibarrako Alurr dantzari taldea*
8. SERAFIN BAROJA: 100 URTE:
  - ASTO KONTUAK.....Hitzak: Serafín Baroja (1840-1912)  
Doinua: Raimundo Sarriegi\*
  - IRIYARENA.....Hitzak: Serafín Baroja  
Doinua: Ezezaguna  
*Bakarreko kantariak: Haizea Muñoz eta Iker Casares*
9. TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON: 40 URTE
  - BARRE EGIN NAHI DUGU.....X. Telleria-J. Ig. Ansorena / Mold.: X. Sarasola\*
  - TXIRRISTA TXINGO.....J. Ig. Ansorena / Mold.: X. Sarasola\*
10. 1512 GOGOAN: 500 URTE.  
*Ibarrako Alurr dantzari taldea*
11. NIKO ETXART:
  - Tumatxa.....Niko Etxart
  - Euskal rock & roll.....Niko Etxart
12. 1937: Durango, Otsandio, Aramaio, Gernika, 75 URTE:
  - BERTSOETAKO OROITZA.....Herri doinua\*
  - GERNIKA.....Pablo Sorozabal\*

## KRESALA DANTZA TALDEA

**Eguna:** Abuztuak **12** igandea

**Ordua:** 20:00

**Lekua:** Konstituzio plazan

**Día:** **12** de agosto domingo

**Hora:** 20:00

**Lugar:** plaza Constitución

